

Hekimen 2021-25

Behin betiko dokumentua

Ezaugarriak eta zereginak



Hekimenen sorrera

Hekimenen sorreran erabili zen dokumentuan honako hitz hauekin definitzen zen erakundearen helburu nagusia:

“Elkarte honen helburua da euskararen hiztun komunitateak eta euskal kulturak behar duten euskal hedabideen eremu komunikatibo sendo bat garatzea.”

Helburua bere horretan idatzia orokor xamarra den neurrian honako helburu zehatzagoetan edo zereginetan zehazten zen Hekimenen jarduna:

1. Euskal hedabideen eremuaz gogoeta etengabea egitea eta eragitea.
2. Elkarteko bazkideen ordezkaritza instituzional bateratua bere gain hartzea, estatutuok ezarritako xedeen barruan, bereziki eskualdeko, erkidegoko, nazioko eta nazioarteko instituzioen aurrean.
3. Finantziazio publiko egokia bultzatzea publizitate instituzionalaren eta diru-laguntza politiken arloan, proportzionaltasuna eta solidaritate printzipioen oreka bermatuz.
4. Bazkideentzat zerbitzu komunak bultzatzea baliabide propioak erabiliaz edota hornitzaile egokienekin hitzarmenak bideratuz.
5. Euskal hedabideen erabiltzaile kopuruak neurtzeko tresnak martxan jartzea baliabide propioak erabiliaz edota hornitzaile egokienekin hitzarmenak bideratuz.
6. Euskal hedabideen erabiltzaile kopurua handitzeko politikak adostea eta inplementatzea.
7. Bazkideen arteko behin behineko aliantzak, elkarlana eta sinergiak bultzatzea.
8. Euskal hedabideen klusterra eratzeke politikak bultzatzea.
9. Bazkideen arteko solidaritate mekanismoak bultzatzea.

Sorrerako dokumentuetan oso era argian begiratzen zaio etorkizunari. Izan ere, Hekimen sortzen den unean bai globalizazioaren eragina bai eta teknologia berriek dakarten eraldaketa ere, oso begi bistakoak ziren. Kezka izaten hasia zen beraz. Gaur egun, kezka horiek areagotzeko arrazoiak badaude. Horrela zioten Hekimenen sortzaileek:

“Etorkizunari begira, hiru dira, gainerako sektoreetan bezala, Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen etorkizunean eragin zuzena izango duten ardatzak: Globalizazioa, teknologia berriak, eta bertako enpresek garatu beharreko espezializazioa.”

Kezka teknologiko eta globalen maila berean beste batzuk ere aipatzen ziren:

“Dena den, aztertzen dihardugun sektore honetan, beste aldagai batzuk ere azpimarratzekoak dira, esaterako: Informazioaren eta kazetaritzaren eraldaketa; informazioaren kalitatea eta hedabideen independentzia; kazetaritzaren funtzio soziala gauzatzeko ezinbesteko tresnak; hizkuntzaren garapena eta normalizazioa.”

Azkenik, esan beharra dago sortze garaian bateratze beharra maiz izaten zela aipatua. Izan ere, Euskal Hedabideen batasuna sustatzea Hekimenen zereginaren erdigunean ageri da kokatua. Ordurarteko atomizazioarekin bukatzeko eta elkarlanari bidea egiteko zeregina aitortzen zaio erakundeari. Hona hemen adibide batzuk:

1. “Sektoreak ahots bateratua izatea: Sektoreak irakurketa bateratua egiten duen gaietan, batez ere hirugarren batzuen aurrean, izan instituzioak, izan hornitzaileak, izan konpetentzia... banan banako ahotsa galdu beharrean, indarra erakusteko aukera ematen baitu honek.
2. Sektorearen gaineko gogoeta egiteko elkarrekin onartutako gunea izatea: Elkarren berri izan eta elkar laguntzea behar denean, sektoreak dituen hutsuneak lokalizatu eta elkarrekin konpondu eta indartzen saiatzeko.
3. Behar berdinei, erantzun bateratua emateko: Hainbatean behar berdinei erantzun behar diete eragileek eta bakoitza bere aldetik aritzen da, indar asko xahutzeko bidea eginez. Honen aurrean, garrantzitsua izan liteke aterabide bateratuak ematea, prestakuntzan, hedabideen sustapenean edota inbertsioetan, adibidez.”

Esan daiteke, beraz abiapuntua eta helmuga argi definitu zirela. Batasunaren eta elkarlanaren bidetik, Administrazioen aurrean ahots bateratua lortuko da eta horrekin, denon interesak hobeki defenditzeaz gain, etorkizunak dakartzan erronkei, globalizazioari eta teknologia berriei nagusiki, baldintza egokiagotan egingo diegu aurre, proiektuen iraunkortasuna bermatuz eta euskarak bere normalizaziorako beharrezko dituen tresnak eskainiz.

Elkartearen sorreran definitzen diren helburuok lortzeko bere biziko lehen urte hauetan marka eraiki du Hekimenek eta orain arteko bere jardunaren ondorioz sektorearen erreferentzia izatea lortu du.

Hekimen aurrera begira (2020-25).

Sorrerako helburuak oinarri hartuta eta etorkizun hurbilean aurreikusten diren erronkak eta aukerak ipar, Hekimen berpentsatzeko eta egokitzeko unea iritsi da. Orain arte, erakundeak izan dituen baliabide mugatuen ondorioz eta EAEko administrazioekin dirulaguntza eredu berria adosteko lanean buru-belarri Hekimenek aukera urriak eduki ditu sortze berean aipatzen ziren zeregin batzuk behar den intentsitatez lantzeko. Unea iritsi da beraz, ahaleginak biderkatzeko eta Administrazioekin beharrezkoak eta ezinbestekoak diren akordio berriak lortzeko eta ditugunak hobetzeko ez ezik, euskal hedabideen garapenerako funtsezkoak diren beste zeregin batzuei ere dedikazioa eskaintzeko. Egokitutako gogoeta prozesu berri honen zeregina hortaz Hekimen enfokatzea izango da, alegia, tresna eraginkorra izan dadin beharrezko aldaketak zein diren pentsatzea eta abian jartzea.

Misioa, bisioa eta baloreak

Hekimenen izateko arrazoia edo misioa euskal hedabideen garapena erraztea da, instituzioen eta gizarte eragileen aurrean lobby lana eginez, hedabideei mota guztietako laguntza eskainiz (zerbitzuak, formakuntza, administrazioekin akordioak lortuz...) eta hedabideen arteko elkarlana sustatuz, alegia, guztiontzako onuragarriak izango diren proiektu komunak erraztuz eta bultzatuz. Euskal hedabideen erronka konpartituei aterabideak elkarrekin bilatzeko tresna bateratua da Hekimen, indarrak bilduz eraginkorrago jokatu daitekeelakoan erronka handien aurrean.

Zeregin horiek denak bisio jakin batekin lotzen dira gainera. Izan ere, Hekimenen jardunak euskal hedabideen baldintzak hobetzeko, euskal ekosistema mediatikoa indartzeko eta,

oro har, arrakastaz irauteko balio behar du. Hekimen tresna bat da, ezinbesteko tresna etorkizunean euskal hedabideek beren funtzioa arrakastaz bete dezaten.

Hekimen euskal hedabideentzat erraztailea izango da, laguntzailea. Hekimenek euskal hedabideen kohesiorako, elkarlanerako eta harremanen hobekuntzarako lan egingo du. Hekimenek hedabide guztien baldintzak alor guztietan errazagoak izan daitezen lan egingo du, beti ere adostasunetik eta onura orokorra bilatuz. Hekimenek, azken finean, euskal ekosistema mediatikoa aberatsa, bizia, dinamikoa eta berritzailea izan dadin lan egingo du. Horiek izango dira bere baloreak.

Elkartearen misioa, bisioa eta baloreak horiek izanik, ondorengo urteotan Hekimen elkarteak zer ildo jorratu beharko lukeen hausnartu ondoren, honako zeregin hauek lehenetsi dira:

Hekimenen zereginak

Hekimenen zeregin nagusia, elkarteari izana ematen diona eta bere jardun orokorraren ardatza dena, eragitea da. Lobby lana, alegia. Bere sorreratik bertatik horrela jardun du eta etorkizun hurbilean ere, eragite lan hori areagotu beharko du euskal ekosistema mediatikoaren garapena errazteko helburuarekin. Beraz, Hekimen ez da ezeren helburua, Hekimen sektorearen garapena bultzatzeko, errazteko eta garai berrietara egokitze euskal hedabideek duten tresna da.

Eragite lan hori egiteko ahalik eta adostasun handienarekin jardungo du Hekimenek hedabide guztien beharrak eta nahiak oinarri hartuta eta sektorearen ahots bateratua eramanez.

Horiexek testuingurua eta helburua Hekimenentzat. Segidan aurkeztuko diren zereginak ikuspegi horri dagozkio.

1.- Baliabideak handitzeko lan ildoak

1.1.- Harremanak administrazioekin

Orain arte haxe izan da Hekimenentzat zeregin nagusia eta fruitu gehien eman duena. Izan ere, EAEko instituzio nagusiekin lortutako akordioa oso kontuan hartzekoa da oro har,

ekarri duen egonkortasunarengatik eta prozesuak eduki duen zailtasunarengatik. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakunde nagusiekin lortutako akordioaren jarraipen lanak zein hobetzeko ahaleginak, hala nola denboran zehar egon litezkeen gorabehera politikoek, dedikazioa eskatuko diote Hekimeni. Bestalde, administrazio gertuenen kasuan, hala Nafarroan nola Ipar Euskal Herrian ere, akordioaren bila arituko da Hekimen euskal hedabideen baldintzak hobetzeko helburuz.

Hekimenek bere presentzia handitu beharko luke Euskal Herri osoan, nortasun propioz agertuz eta sektorearen ahots bateratua eramanez akordioak errazte aldera. Urteetako lana da baina, administrazioekiko harremanak hobetzeko, errazteko eta akordioetara iristeko, ezinbestekoa.

Edozein kasutan, Ipar Euskal Herriari dagokionez, egoera instituzionala, hizkuntzaren ofizialtasun eza eta hedabideen sektorea Parisen zentralizatua dela kontuan hartuz, Hekimenek eskuz esku lan egingen du *"Euskal Hedabideak"* elkartearekin.

Gaur egun, Kanaldude, Euskal Irratiak, Herria, Ipar Euskal Herriko Hitza eta Kazeta biltzen duen elkarte honek harreman hurbilak ditu tokiko eta Frantzia mailako instituzioekin eta Hekimenen helburuak Ipar Euskal Herriko egoerara egokitzeko lanak bere gain hartuko ditu.

Elkartearen ordezkari batek segituko ditu Hekimen elkartearen zuzendaritzako bilkurak informazioak trukatzeko eta urtero *"Euskal Hedabideak"* elkarteak ekintza plana partekatuko du Hekimenekin. Azkenik, Hekimenekin lan egiten dela eta helburuekin ados dela bere komunikazio guzietan azalduko du.

Administrazioekiko harremanekin segituz, Espainiako eta Frantziako dirulaguntzak eta bestelako aukerak ezin dira baztertu. Hekimenek bi estatuek euskarazko hedabideentzat ematen dituzten laguntzen informazioa eskuratuko du. Laguntzarik ez balego Hekimenek eragingo du bi estatuek halako dirulaguntzak sor ditzaten, gaztelania eta frantsesetik kanpoko hizkuntzetako hedabideak sustatzeko.

Azkenik, Europako funtsak ustiatzeko bideak ez dira errazak izaten edo behintzat ez dago ohitura handirik horiek eskuratzeko. Euskal Herria bi estatuen artean zatituta egoteak abantailak ekar ditzake mugaz bi aldeetako proiektuak garatzeko unean. Maiz, laguntza horiek eskuratzea teknikoki zaila izaten da eta beharrezkoa da aholkularitza zerbitzu espezializatueta jotzea.

Hekimenek alor horretan bazkideek laguntzak eskuratu ahal izateko informazio egokia eskaintzeko bidea egingo du. Oso onuragarria izan daiteke hedabideentzat laguntza hori eta sektoreari funtsak eskuratzeko bide berri bat ekar diezaioke.

Horretaz gain, beste herrialde batzuekin (katalanekin...) batera ere, proiektu berritzaileetarako funtsak bideratzeko aukerak egon daitezke.

Instituzioekiko harremanetan diru baliabideak areagotzeko ahalegina egiteaz gain, Hekimenek euskal hedabideen zeregina errazten ahal duten bestelako eskariak ere egingo ditu. Esate baterako, adibide gisa, irudiak erabiltzeko baimenen auzia aipatuko dugu.

Inbertsio publikoak areagotzeko dagoeneko aipatu den lobby lana da eraginkorrena dudarik gabe eta bide hori jorratuko du Hekimenek. Beraz, esan liteke, administrazioekiko harremanen kudeaketa iraunkorra izango dela datozen urteotan.

Esan gabe doa, Hekimenek administrazioekin akordioak lortzeko lan ildo bat irekita izango badu ere, une jakinetan murrizketen aurrean edo bestelako bidegabekerien aurrean beharrezkoa izan daitekeela sektore osoaren babesa eskaintzea hedabide jakin bati edo azpisektore bati. Hekimenek zeregin hori bete dezake sektorearen ahotsa den neurrian uneoro egoerak eskatzen duen neurriko erantzunak emanez.

1.2.- Bestelako harremanak

Hekimenek egin beharreko lobby lana bere zentzurik zabalenean ulertu behar da. Beraz, administrazioekiko harremanetan gertatzen den bezala euskal hedabideen eragina beste alor batzuetara ere hedatu beharko da besteak beste, alderdi politikoak, sektore ekonomikoak eta abar.

1.3.- Publizitatea

Publizitatearen gaia kezka iturria da hedabide askorentzat. Alde batetik, publizitate pribatuari eusteko eta berria erakartzeko zailtasuna aipatzen da eta bestaldetik, publizitate instituzionalaren banaketa desorekatuak beharrezko baliabideak desbideratzen ditu beste aukera batzuetara.

Publizitate instituzionalari dagokionez, Hekimenek funtzio politikoa bete behar du, banaketa egoki eta orekatu baten alde. Publizitatearen gaia lehentasunez landuko du Hekimenek honako lan eskema honi segituz:

- a.- Egoeraren azterketa sakona egingo du Hekimenek publizitatearen banaketa nola egiten den ongi ezagutzeko.
- b.- Administrazio publikoek publizitate banaketa justua egin dezaten zer irizpide den bete beharrekoa definituko du Hekimenek.
- c.- Azkenik, irizpideok inplementatzeko eragingo du Hekimenek administrazio guztietan.

Publizitate pribatuari dagokionez, Hekimenek ez du lan egingo publizitate agentzia baten gisan, ez du publizitate pribatua kontratatzeke zereginik edukiko baina, une bakoitzean euskal hedabideentzat urrunak diren espazio pribatuetan aukerak zabaltzeari begirako lanak egin ditzake. Bereziki interesgarria izan daiteke inbertsio pribatuak erakartzeko ahalegina. Jorratu gabeko gaia da eta elkarlanean sortutako proiektuak garatzeko aukera izan liteke.

2.- Sektorearen ezagutza sakontzeko lan ildoak

2.1.- Sektorearen monitorizazioa

Sektorearen bilakaera etengabe monitorizatzea ezinbestekoa da estrategiek emaitza egokiak ematen dituzten edo ez jakiteko. Oinarrizko adierazle batzuei etengabeko segimendua egitea garrantzitsua izango da sektorearen osasunaren berri edukitzeko.

Monitorizazio zehatz batek bakarrik eman diezaguke aukera sektoreak behar dituen egokitzapenak egiteko. Datuak, eskuratu, sistematizatu, irakurri eta horietan oinarrituz sektorearentzako alternatibak proposatzea Hekimenentzako lana da eta oso onuragarria

sektore osoarentzat. Zeregin hau Behategiaren laguntzaz egin daiteke iraganean egin den bezala.

Garrantzitsua da sektorearen datuen irakurketa egitea erabiltzaileen ezagutza handitzeko bai kuantitatiboa bai eta kualitatiboa ere. Sektorearen irismena ezagutzea eta handitzeko bideak proposatzea da Hekimenen zeregina. Erabiltzaileei dagokienez, jada euskal hedabideak erabiltzen dituzten pertsonak ezagutu beharraz gain, komenigarria da erabiltzaile potentzialak ere ezagutzeko lana egitea. Izan ere, komunitatea handitzeko bidea izan daiteke.

Monitorizazioak bi alde ditu, kanpora begirakoa eta barrura begirakoa. Biak ala biak garrantzi handikoak. Hekimenek biak landuko ditu.

2.2.- Komunikazioa

Sektorearen aldeko kanpaina publikoak ere Hekimenen zereginen barruan daude. Hekimenek euskal hedabideen aldeko komunikazio estrategia sendoa eta iraunkorra garatu beharko du Euskal Herrian euskal hedabideek duten garrantzi estrategikoa etengabe azpimarratzeko. Komunikazio behar koiunturalez harago euskal hedabideen lana balioan jarriko duen komunikazio ildo estrategikoa garatuko du Hekimenek.

Arestikoan oinarrituz Hekimenek komunikazio estrategia garatuko du bi helburu nagusirekin. Alde batetik, euskal hedabideek egiten duten mota guztietako ekarpen sozialak gizartearen aurrean balioan jartzeko helburua izango du Hekimenek. Hala nola, kalitatezko informazioa hedatzea, gizartea bera kohesionatzea, edota euskararen normalizazioa bultzatzea nabarmenduko ditu elkarteak. Bestaldetik, barrura begirako komunikazioa garatuko du Hekimenek euskal hedabideak osatzen dituzten profesionalek, nahiko balute, sektorearen garapenean esku hartzeko aukera izan dezaten horrela nahi badute. Horretarako, Hekimenek proiektuen, gogoeten eta aurrera begirako erronken berri eskainiko die elkarlana errazteko helburuz.

2.3.- Antena teknologikoa

Argi dago erronka teknologiko handien aurrean dagoela egun sektorea, eta Hekimenek horretan ere hedabideei babesa eman beharko diela. Esaterako, ikusita hizkuntza txikietako hedabideei hizkuntza-teknologiekin zer aukera irekitzen zaizkigun, Hekimenek horiei buruzko informazioa emango du (eta horiek garatzeko egon daitezkeen baliabideei

buruzkoa) edo, behintzat nolabaiteko aholkularitza eskainiko du teknologiak eskaintzen dituen aukerak eta dakartzan aldaketak hedabide guztientzat ezagunak izan daitezzen.

Itzultzaile automatikoa, hizketa ezagutzaileak, bozgorailu adimendunak, testu-meatzaritza eta beste batzuk oso interesgarriak dira euskal hedabideentzat, eta horiek bezala beste asko. Hekimen berrikuntza teknologikoen berri emateko tresna interesgarria da. Beraz, sektorearen garapena errazteko interesgarriak izan daitezkeen datuak, teknologiak eta ikerketak denen eskura jartzea ezinbesteko zeregina da Hekimenentzat. Informazio ona edukitzeak sortzen ditu berrikuntzarako aukerak. Informazio hori modu errazean denen eskura egotea sektorearen garapenerako ezinbestekoa da. Bide horretan, Hekimenek burujabetza teknologikoaren aldeko hautuak sustatuko ditu horretarako aukera dagoen guztietan.

2.4.- Gogoeta

Sektorearen ezagutza sakontzeko bide eraginkorra da gogoeta bera. Gai desberdinen inguruan sektoreak duen iritzia ezagutzea eta elkarrekin aurrera egiteko bideetan adostasuna lortzeko helburuz gogoeta egiteak errazten du sektorearen konplexutasuna ezagutarazteko lana. Beraz, Hekimenentzat gogoeta, adostasuna lantzeko eta elkarlana errazteko bidea izateaz gain, sektorearen ezagutza sakontzeko bidea ere bada eta ondorioz beharra ikusten denean horrelako lanketak sustatuko ditu sektoreak aurrera egin dezan.

2.5.- Formakuntza

Euskal hedabide gehienek izan badute haien langileak formatzeko estrategia. Hekimenek ez du inongo kasutan zeregin hori ordeztuko. Hala ere, hedabideek beren formakuntza saioetan jasotzen ez dituzten gaiak lantzeko aukera izango du Hekimenek, beti ere, hedabideen formakuntza estrategien osagarri.

3.- Ekintza bateratua sustatzeko lan ildoak

Hekimenek ekintza behar du bere helburuak betetzeko. Eraginkortasuna, berrikuntza, ezagutza, komunikazioa, formakuntza ez dira ezer ekintzarik gabe. Hekimenek adostasunean oinarritutako elkarlana sustatuko du ekintzen bitartez euskal hedabideen garapenerako biderik eraginkorrena den komentzimendutik.

3.1.- Elkarlana

Elkarlana hitz hutsetik harago eramateko, proiektu zehatzetan egikaritu behar da. Elkarlana akzioa da, ekintza da. Izan badira proiektu batzuk beren konplexutasunagatik zailak direnak hedabide bakar batentzat. Bada, horiek sortzeko bidean Hekimenek erraztasunak eskainiko ditu prozesuak dinamizatuz, koordinatuz eta kudeatuz, hedabide guztiek izan dezaten elkarlanerako aukera edozein izanik ere haien tamaina edo baliabideak. Areago, Hekimenek sustatzen dituen proiektuek ere lobby lana errazteko funtzioa eduki behar dute.

Arestian esan bezala, etorkizuneko erronka teknologikoek indarrak batzea eskatuko dute. Izan ere, inbertsioak errentagarri bihurtzeaz aparte, maiz elkarlan konplexuak eskatuko dituztela aurreikusgarria da. Zentzu horretan, proiektuak sustatzea, koordinatzea, bultzatzea edota proiektuekiko inbertsioak lortzea Hekimenen zeregina izango da hedabide bat baino gehiago inplikatzeko denetan. Modu bakarra da baliabide gutxiago duten hedabideek ere proiektu berritzaileetan parte har dezaten.

Etorkizun hurbilean egiturazko erronka handiei egin beharko die aurre sektoreak. Ziur aski, esanguratsuena eta euskal hedabide guztiei eragingo diena 5G sistemaren ezarpena izango da. Esan bezala, sistema berri horrek hedabide guztiei eragingo die eta gutxi asko, denek moldatu beharko dute. Inbertsioetarako aukerak, tamainak, hedadurak eta bestelako baldintza batzuk eragingo dute eta ez da izango denentzat egokitzen erraza.

Hekimenek, beraz, bitartekoak jarri beharko lituzke inor atzean gera ez dadin. Elkarlana ahalik eta integralena izan dadin lan egingo du elkarteak. Kohesioa eta trinkotzea benetakoa izan dadin elkarlana proiektu zehatz eta efektiboetan kristalizatu beharra dago. Hekimenek, beraz, elkarlan efektibo hori errealitate bihurtzeko lan egingo du. Horixe da bere sortze arrazoia.

Sorrerako helburuei muzin egin gabe, baina, horiek egungo errealitatera egokituz lan egitea da bidea, etorkizun hurbilak dakarzkigun erronkak gainditzeko moduan egon dadin euskal hedabideen sektorea.

Hekimenek lan egingo du edozein izanik ere hedabidearen tamaina, inbertsio aukerak edo hedadura garatzeko gutxieneko baldintzak izan ditzan. Beraz, arreta berezia jarriko die aukera gutxiago duten hedabideei zerbitzuak eskaintzeko unean.

3.2.- Hedapen geografikoa

Hedabide askoren izaera lokalak batetik eta egoera soziolinguistikoak bestetik nabarmen zailtzen dute espazio geografiko berriak irabaztea. Euskal hedabideen presentzia handia ez den lekuetan handiagoa izan dadin lan egingo du Hekimenek, beti ere, hedatzeko interesa duten hedabideen laguntzaz eta haien hobe beharrez.

Espazio geografikoarekin batera espazio funtzionala ere nabarmen handi daiteke. Esate baterako, euskal hedabideen presentzia Hezkuntzan handitzeko lana egin dezake Hekimenek,. Izan ere, etorkizuneko bezeroak belaunaldi berriak izango dira eta haien ohiturak, nahiak eta beharrak ezagutzea ardatz nagusia da egokitzapenerako. Horretaz gain, euskal hedabideen kontsumo ohiturak txiki txikitatik lantzea bide eraginkorra da komunitatea handitzeko.

3.3.- Barne kohesioa

Euskal hedabideen arteko barne kohesioa lantzeak adostasuna eta elkarlana erraztuko ditu. Zentzu horretan, hedabideak osatzen dituzten langileen arteko harremanak sendotzen diren neurrian eta elkarren arteko ezagutza sakontzen dugun neurrian errazagoa izango da proiektu komunak sortu eta garatzea. Hekimenek, beraz, euskal hedabideetako langileak kohesionatzeko bideak artikulatuko ditu, harremanak erraztuz eta elkarren ezagutza ahalbidetuz.

2021eko martxoaren 10ean